

KOSTUEN EGITURA

Lokala eta alokairuaren aldetik lokalaren errentamendua dugu, gunearen alokairuaren edo erosketaren kostua, adingabeentzako lege eta segurtasun baldintzak betetzen dituela ziurtatuz egin behar dugu.

Langileak erreparatuz, hasteko, langileen soldata dugu, barne hartzen ditu segurtasuneko langileentzako, zerbitzuko langileentzako, entrenimenduko langileentzako eta beharrezko beste edozein langileentzako soldatak. Segurtasuneko langileak kontratatzea ingurune segurua bermatzeko eta azkenik animatzaileak edo monitorea, adingabeentzako jarduera espezifikoak eskaintzen badira, beharrezkoa izan liteke langile osagarriak izatea.

Lizentziak eta baimenen aldetik, adingabeentzako establezimendu batean jarduteko berariazko lizentziak eta baimenak lortzea beharrezkoa dugu.

Entrenimendua eta jarduerak, alde batetik DJ edo zuzeneko entrenimendua dugu, adibidez, musikarekin eta entrenimenduarekin lotutako kostuak adingabeentzat. Beste aldetik, jardueretarako materiala kontutan hartu behar dugu jarduera gehigarriak antolatzen badira, hala nola jolasak edo tailerrak, beharrezko materialekin lotutako kostuak kontuan hartu behar dira.

Segurtasuna eta ekipamendua, hasteko, segurtasun sistemak instalatzea eta mantentzea, hala nola kamerak eta alarmak. Ondoren, soinu eta argien ekipamendua, kalitatezko ekipoetan inbertitzea, entrenimendu-esperientzia erakargarria eta segurua eskaintzeko.

Publizitatea eta marketina, tokiko publizitatea hain zuzen ere, xede-publikoarengana iristeko establezimendua sustatzearekin lotutako gastuak eta sustapen-materialak diseinatzea, kartelak, liburuxkak eta bestelako publizitate-materialak sortzearekin lotutako kostuak.

Elikagaiak eta edariak, adingabeek kontsumitzeko elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak erostea.

Hornidurak eta kontsumigarriak, oinarrizko hornidurak, garbiketa-produktuak, ahozapiak, edalontziak eta abar erostearekin lotutako gastuak.

Azkenik, zerbitzu publikoak, oinarrizko zerbitzuen fakturak, hala nola elektrizitatearena eta urarena.